

## Laburbilduz

**J**arraian datorrena irakurtzeko irudikatu irratia-ahots bat, edozein, gustukoen duzueña edo gehien gorrotzen duzuena. Eroso eseri, adostasunaren nahiz ezadostasunaren bidean sartu ahal izateko. Hona eguneko aktualitatea laburbiltzen duten titularrak lau egunkaritan.

*Berriak:* “Ondarroako operazioko atxiloaldiaren bideorik ez dagoela aitortu du Aresek”, orrialde bat. “AHTren aurka, meategi barruan. Leherketak egin dituzte ekintzaileak meategian egonagatik”, bi orrialde. “Gaur hasiko da Euskal Herria Zuzenean jaialdia, Heletan”. “Heldu zerbitzua ixteak etorkinak babesik gabe utziko dituela ohartarazi dute”. “Anzaren familiak fiskala ikertzeko eskatu dio Alliot-Marie”. “Udazkenean lan gatazkak areagotuko direla diote ELAk eta LABk”. “Vital Kutxako presidente kargua uztea erabaki du Gregorio Rojok” eta “Zallobentako harrobiko lanak berehala uzteko agindu du Jaurlariatzak”. Kirola atalak, lau orrialde.

*Garak:* “La familia de Anza reclama explicaciones por falta de investigación”, bi orrialde eta editoriala. “Bajo el suelo del TAV”, orrialde bat. “Langileek lan erreformari emandako ezezkoa negoziazio kolektibora eramango du gehiengo sindikalak”, bosgarren orrialdea. “Canícula jazzistica”, cultura atalean, bi orrialde. “Sanfeminak 2010 Irunean”, gehigarri berezia, hamasei orrialde.

*Noticias de Gipuzkoa* egunkariak: “La delincuencia juvenil crece en Euskadi un 19% durante 2009”, bi orrialde. “Basagoiti reivindica la roja y se parte el perón”, hamaseigarren orrialdean. “La Diputación advierte la brusca caída del ahorro de los municipios guipuzcoanos”, bi orrialde. “Recurren por favoritismo un concurso de Donostia Kultura”. “Una subida fatal. Comerciantes y consumido-

DANI BLANCO



Ixier Rozas

Urkiza Padrón

res desaprueban la subida del IVA”. “Tour: Cinco vascos debutan en la ronda gala en busca de algún triunfo parcial”, bi orrialde eta gehigarri berezia. “Real: El padre de Demidov asegura que su hijo ha elegido la Real”. “Sudáfrica 2010: Brasil, Holanda, Ghana y Uruguay a por las semifinales”, bost orrialde. “Hoy, la revista Stylo”.

*El Paisek*, País Vascoko orrialdeetan: “El PP consigue que Rojo se marche”. “Industria ordena el cierre inmediato de la polémica cantera de Zallobenta”. “La subida del IVA no afecta a las rebajas”. “Directivos vascos ven con incertidumbre la reforma laboral”. “Plan de igualdad de oportunidad en Kutxa para hombre y mujer”. “Los universitarios de 2006 lograron trabajo en menos de tres años”. “El responsable del metro también dirigirá el consorcio de transportes”. “PSOE y PP piden que el anterior equipo de EITB se explique en el Parlamento”. “La Ertzaintza redoblará su esfuerzo contra la simbología etarra en verano”. “Las murallas de Vitoria se convertirán en un jardín”.

Zerrenda osatzen dudan bitartean, Iñaki Azkuna alkate jaunaren ahotsa irratian, Singapurretik, Bilbok “hirien Nobel saria” jaso duelako. Azkuna jaunak bota duen bigarrengoa esaldia: “Sari hau lortzeko kamiseta izerditu behar izan dugu”. Esaldi eredugarria hizkuntzaren erabilera aldetik, are eredugarriagoa, esaldi dioen bitartean Azkuna jaunak irudikatu dituen gizonezkoen kamiseta izerdituak irudikatu ahal izan ditudalako neuk ere. Eta hau idazten dudan bitartean, izerditan

bero sapa dagoelako, nire auzoa beste Nobel sari baterako desegiten eta eraldatzen ari diren kamioiez, garabiez eta hondeatzaile makinez josita dago. Eta hotza behar du bitartean Itsasondoko meategian, lurpean, hotza hezurretaraino, ilunpetan bidoi dardarati bati lotuta. ■

Hotza behar du Itsasondoko meategian, lurpean,  
hotza hezurretaraino, ilunpetan  
bidoi dardarati bati lotuta